



7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa bat sortzeko eta behar bezala funtzionatzeko oinarri nagusiak funtsezko baliabideak dira. Baliabide horiek honako hauek izan daitezke: giza baliabideak (pertsonek), fisikoak (lan-baliabideak), intelektualak (beharrezko ikasketak edo trebetasunak) eta ekonomikoak (finantzaketarako dauden baliabideak).

Gure enpresako funtsezko baliabideak honela banatzen dira:

GIZA BALIABIDEAK	BALIABIDE FISIKOAK	BALIABIDE INTELEKTUALAK	FINANTZA- BALIABIDEAK
<u>Langileak:</u> eskulana, kudeaketa eta salmenta. <u>Hornitzaileak eta banatzaileak:</u> kit-a egiteko beharrezko tresnak lortu ahal izateko. <u>Bezeroak eta erabiltzaileak</u> : gure joko- kit-aren erosketa eta erabilera.	<u>Materiala:</u> kit-a sortzeko beharrezko materialak. <u>Makineria:</u> serigrafia atala egin ahal izateko. <u>Ordenagailuak</u> : lanaren erregistro bat izateko, webgunea eta sare sozialak sortzeko eta bezeroekiko komunikazioa eramateko.	<u>Giza- trebetasunak:</u> komunikazio- gaitasuna, antolakuntza, negoiazioa, moldagarritasuna , gertutasuna, adiskidetasuna. <u>Hizkuntzak:</u> gaztelaraz eta euskaraz hitz egiten jakitea.	CIFP Mendizabala LHII zentroak eskaintzen digan kultura ekintzailerako diru laguntza jaso dugu, kit- a sortzeko behar dugun material kostuak ordaintzeko.

Garrantzitsua da, halaber, gure baliabide ukigarriak eta ukiezinak azpimarratzea. Hau da, jasotako esperientzia, eraikitako kontaktu-sarea eta garatutako trebetasunak proiektuaren arrakastarako ezinbestekoak direnak.



Gure kasuan, **esperientzia** kontuan hartuta, ikus-entzunezko graduiko ikasleak garen aldetik, istorioak jendeari komunikatzeko esperientzia zabala dugu. Horri esker, gure jolas kit-a saltzerakoan, bezeroekin komunikazio eraginkorra eta gertutasuna mantenduko dugu. Gainera, taldeko kide askok hurrekin lan egiteko esperientzia ere badugu, eta hori balio erantsi garrantzitsua da gure helburuak lortzeko.

Kontaktuei dagokienez, kit-a sortzeko beharrezko materialak lortzeko gure ikastetxeak Gasteizeko hainbat enpresen kontaktuak eskaini dizkigu. Horrez gain, proiektua aurkezteko parte hartuko dugun azokaren bidez harreman berriak sortzea espero dugu, eta gure lehen bezeroak eskuratzea ere bai.

Trebetasunei dagokienez, talde-lanean aritzeko, produktu berri bat hutsetik sortzeko eta horrez gain, material birziklatuak erabiliz ingurumenaren eragina murrizteko bezalako trebetasunak garatu izan ditugu. Are gehiago, arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzeko aukera izan dugu, sormenari eta baliabide mugatuei aurre egiteko irtenbide eraginkorrak bilatuz. Gainera, merkataritza-estrategiak sortzen eta proiektuaren helburuak modu argi eta erakargarrian komunikatzen trebatu gara.